

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Eragindako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|-----------------------------------|--|-----------------------------------|
| 43/2015 | R28/2016 | 2016-12-28 | Bizkaiko Foru Aldundia | Zerga Administrazioko Estatu Agentzia. | Pertsona juridikoen zerga-egoitza |

Ebazpena: R28/2016

Espedientea: 43/2015

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduaren 28a,

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako hau

ERABAKI DU

Zerga Administrazioko Estatu Agentziak (ZAEA) Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean aurkeztutako eskumen-gatazkaren inguruan, ERAKUNDEA (IFZ -----) erakundearen zerga-egoitzari dagokionez; gatazka hori Arbitraje Batzordearen aurrean izapidetzen ari da, 43/2015 espediente-zenbakiarekin, Javier Gabriel Casado Ollero jauna txostengile duela.

I. AURREKARIAK

1.- 2015eko abuztuaren 28an ZAEAKo zuzendari nagusiak eskumen-gatazka aurkeztu zuen Bizkaiko Foru Aldundian, ERAKUNDEA (IFZ -----) erakundearen zerga-egoitzaren inguruan sortutako desadostasunak ebazteko eta Arbitraje Batzordeak erakundearen helbidea 2007ko otsailaren 6tik Bizkaian beharrean Madrilen zegoela ebatz zezan eskatzeko.

2.- Espedienteak honako aurrekari hauek ditu:

a) ERAKUNDEA Madrilen eratu zen 1992ko abuztuaren 5ean, eta hiri

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Eragindako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|-----------------------------------|--|--|
| 43/2015 | R28/2016 | 2016-12-28 | <i>Bizkaiko Foru Aldundia</i> | <i>Zerga Administrazioako Estatu Agentzia.</i> | <i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i> |

- horretan finkatu zituen egoitza soziala eta zerga-egoitza, hasieran 1. HELBIDEAN eta 2001etik aurrera 2. HELBIDEAN. Sozietatearen helburua, estatutuen arabera, «zentral hidroelektrikoak erostea, eraikitzea eta ustiatzea» da.
- b) Eskritura publiko bidez, erakundeak bere egoitza soziala Madriletik lekualdatu zuen Bilboko 3. HELBIDERA, 2006ko abenduaren 4an.
- c) ZAEAKo Euskadiko Ordezkaritza Bereziak 2014ko maiatzaren 29an idatzi zuen txostenean, erakundeak aitortutako zerga-egoitza egiaztatze aldera egindako jarduketak zein ZAEAREN datu-basetik ateratako informazioa oinarri hartuta, frogatutzat jotzen da ERAKUNDEAREN negozio-kudeaketa eta zuzendaritza-funtzioak Madrilgo 4. HELBIDEAN zentralizatuta daudela.
- d) ZAEAKo Madrilgo Ordezkaritza Bereziak 2014ko abenduaren 1ean idatzi zuen txostenean ondorioztatzen denaren arabera, halaber, «Bilboko (Bizkaia) 3. HELBIDEA ----- IFZ zenbakidun ERAKUNDEAREN benetako zerga-egoitza ez dela» frogatutzat ematen da, eta «zerga-egoitza ofizioz zuzentzeko espedientea irekiko duela ulertzen da, Euskaditik Madrilera aldatzeko, 2007ko otsailaren 6tik harako atzeraeraginekin, erakundea ustez Euskadira lekualdatu zen datatik, alegia».
- e) ZAEAKo Euskadiko Ordezkaritza Bereziak Erakundearteko Harremanetarako Bulegoko buruak zerga-egoitza aldatzeko proposamena jakinarazi zion BFARI 2014ko abenduaren 23an, Ekonomia Itunaren 43. artikuluko bederatzigarren zenbakian xedatutakoaren arabera, Bilboko (Bizkaia) 3. HELBIDEAN aitortutako egoitza Madrilgo 4. HELBIDERA aldatzeko, 2007ko otsailaren 6tik harako eraginekin. Proposamenarekin batera Euskadiko ZAEAREN 2014ko maiatzaren 29ko txostena eta Madrilgo ZAEAREN 2014ko abenduaren 1eko txostena jasotzen dira, eta honako hau adierazten da: «proposamen honek Administrazioen arteko preskripzioak eten egiten ditu komunikazio-datan

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Eragindako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|-----------------------------------|--|-----------------------------------|
| 43/2015 | R28/2016 | 2016-12-28 | Bizkaiko Foru Aldundia | Zerga Administrazioko Estatu Agentzia. | Pertsona juridikoen zerga-egoitza |

preskribatu gabeko aldi eta kontzeptu guztiei dagokienez eta, zehazki, BEZari eta sozietateen gaineko zergari dagokienez».

- f) Bizkaiko Foru Ogasunaren Ikuskaritza Zerbitzuak 2015eko ekainaren 26an igorritako txostena ikusita, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasunaren zuzendari nagusiak ZAEAko Euskadiko Ordezkaritza Bereziko Erakundearteko Harremanetarako Bulegoari honako hau jakinarazi zion 2015eko uztailaren 29an igorritako idatziaren bidez: «adostasunik ez dagoenez, Euskadiko Ekonomia Itunaren 43.9 artikuluan oinarritutako proposamenarekiko desadostasunaren berri ematen dugu, zergapekoaren zerga-egoitza 2007ko otsailaren 6tik MADRILGO 4. HELBIDERA aldatzeko espedientea irekitzeko desadostasunaren berri, zehazki».
- g) 2015eko abuztuaren 25ean, ZAEAk gatazka planteatzeko erabakia jakinarazi zion Autonomiako eta Tokiko Koordinazioaren Idazkaritza Nagusiari, Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 10. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.- Gatazka planteatzeko idatzian, ZAEAko zuzendari nagusiak honako hau zeritzon: «kudeaketa administratiboa eta negozioen zuzendaritza benetan non zentralizatzen diren zehazte aldera Auzitegi Gorenak ezarritako irizpideak ERAKUNDEARI aplikatuz gero, gatazka honen xede den sozietatearen zerga-egoitza horien arabera identifikatzeko, aintzat hartu behar dugu (...) hainbat froga daudela zergapekoaren helbide fiskala Madrilen kokatu behar dela argi eta garbi ondorioztatzeko balio dutenak, 2007an egoitza Bilbora formalki lekualdatu zen datatik aurrera». Eta deskribatzen dituen gertakarietan eta kasu honetan aplikagarritzat jotzen dituen zuzenbidezko oinarrietan oinarrituz, ZAEAko zuzendari nagusiak honako hau ondorioztatzen du: «gertakariak ZAEAk proposatzen duen egoitza identifikatzen dute kudeaketa administratiboa eta negozioen zuzendaritza benetan burutzen den toki gisa, ZAEaren eta BFaren arteko desadostasun-aldiari dagokionez». Hori dela eta, Arbitraje

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Eragindako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|-----------------------------------|--|-----------------------------------|
| 43/2015 | R28/2016 | 2016-12-28 | Bizkaiko Foru Aldundia | Zerga Administrazioko Estatu Agentzia. | Pertsona juridikoen zerga-egoitza |

Batzordeari eskatzen dio gatazka onar dezan eta, beharrezko izapideen aurretik, gatazka balioestea ebatz zezan, 2007ko otsailaren 6tik erakundeak zerga-egoitza Madrilgo 4. HELBIDEAN izan duela aitortuz.

4.- 2016ko irailaren 28an, ZAEako Euskadiko Ordezkaritza Bereziko Erakundearteko Harremanetarako Bulegoko buruaren idatzia aurkeztu zen Arbitraje Batzordean. Bertan jakinarazten denez, Bizkaiko Foru Aldundiak onartu egiten du ERAKUNDEAREN zerga-egoitzaren aldaketa, Estatuak proposatutakoa, alegia, eta ondoriozko finantza-fluxuen ordainketarako (konpentsazio bidez) akordioa lortzen da. Hori dela eta, «ERAKUNDEAREN egoitzaren gaineko akordioak prozeduraren beharrezko izapidetzeari eragiten ez diola» aintzat hartzen du, «errekurtsioen bidea hartu ere egin ez duen zergapekoari dagokionez», eta prozeduraren artxibatzea erabakitzea eskatzen du auzigaia desagertzeagatik.

5.- 2016ko azaroaren 4ko bilkuran, Arbitraje Batzordea arestian aipatutako ZAEako Euskadiko Ordezkaritza Bereziko Erakundearteko Harremanetarako Bulegoko buruaren idatziaz jabetu zen, eta gatazka izapidetzea onartzea erabaki zuen. Era berean, ERAKUNDEARI 43/2015 espedientea ikustera ematea ebatzi zuen, Ekonomia Itunaren 43. artikuluko seigarren zenbakian xedatutakoaren arabera, zeinetan honako hau zehazten baita: «zergapekoen egoitza zein den erabakitzeko orduan administrazioen artean desadostasunak sortzen baldin badira, Arbitraje Batzordeak konponduko ditu arazoak, zergapekoek diotena entzun ondoren». Horren arabera, erakundea prozeduran pertsonatu zitekeen hilabete bateko epean, behar beste alegazio egiteko. Halaber, ZAEARI eta BFARI jakinarazi zitzaizen hori.

6.- Bizkaiko Foru Ogasuneko Koordinazioko eta Laguntza Teknikoko zuzendariordeak Arbitraje Batzordeari honako hau jakinarazi zion 2016ko azaroaren 17an: «Zerga Administrazioko Estatu Agentziarekin 2016ko

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Eragindako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|-----------------------------------|---|-----------------------------------|
| 43/2015 | R28/2016 | 2016-12-28 | Bizkaiko Foru Aldundia | Zerga Administrazioako Estatu Agentzia. | Pertsona juridikoen zerga-egoitza |

irailaren 25ean adostutako akordioaren bitartez, Bizkaiko Foru Aldundiak onartu egin zuen aipatutako Estatuko Agentziak proposaturiko zerga-egoitzaren aldaketa; beraz, aipatutako Estatuko Agentziak planteatutako gatazkak eragindako eztabaida amaitutzat ematen da, eta, ondorioz, eskubide-urraketarik jasan duen hirugarrenik ez dagoela aintzat hartuz, Arbitraje Batzordeari eskaria egiten zaio prozeduraren artxibatzea erabaki dezan auzigaia desagertzeagatik».

7.- Idatzi bidez, 2016ko abenduaren 12an ERAKUNDEAK alegazioak aurkeztu zituen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35.e) artikuluan oinarrituz, eta laburpen modura azaltzen duenaren arabera, zerga-egoitza Madrilerla lekualdatu zutela arrazoitzeko ZAEAK emandako datuak «sozietatearen jardueraren inguruko ezjakintasun erabatekoaren emaitza dira, eta beraz, horietatik ateratzen diren gainerako ondorioak guztiz baldintzatzen dituzte». Horrez gain, «ZAEAK emandako arrazoiek ez dute indargabetzen ERAKUNDEA Bilbora lekualdatu zenetik horren zerga-egoitza bertan kokatzen delako ideia». Honako hau gehitzen da: «ERAKUNDEAREN zerga-egoitza non dagoen edo kudeaketa administratiboa edo negozioen benetako zuzendaritza non zentralizatzen diren zehazteko, ezinbestekoa da zer sozietate mota den aintzat hartzea»; izan ere, «energia elektrikoaren ekoizpenaz» arduratzen diren erakundeei dagokienez, beharrezkoa da energia zer lekutan ekoizten den eta negozioaren zuzendaritza benetan zer lekutan gauzatzen den bereiztea. Era berean, azpimarratu egiten du Espainiako sistema elektrikoaren kudeaketa integralak zer berezitasun dituen, Madrilen kokatzen dela eta sistema elektrikoan jarduteak dituen exigentziak zeintzuk diren. Horien arabera, beharrezkoa da prestakuntza eta ahalorde nahikoa dituen pertsona bat Madrilen edukitzea eta gutxieneko egitura duen lantoki bat izatea [kasu honetan, bat egiten du Lege-aholkularitzarako Bulegoarekin]. Jarraian, adierazi egiten du horrek guztiak ez duela ezabatzen kudeaketa administratiboa eta

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Eragindako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|-----------------------------------|---|-----------------------------------|
| 43/2015 | R28/2016 | 2016-12-28 | Bizkaiko Foru Aldundia | Zerga Administrazioako Estatu Agentzia. | Pertsona juridikoen zerga-egoitza |

negozioen benetako zuzendaritza Bizkaian garatzen dela, bertan hartzen baitira erabakiak erakundeak egoitza lurralde horretara lekualdatzea erabaki zuenetik. Azkenik, ondorioztatu egiten du «ez dagoela zantzurik kudeaketa administratiboa eta negozioen zuzendaritza Bilboko zerga-egoitzan gauzatzen dela zalantzan jartzeko».

8.- Prozedura hori Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen araudia onartzen duen abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuan xedatuta dagoenaren arabera izapidetu da.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Ekonomia Itunaren 43. artikularen bederatzigarren zenbakian xedatutakoaren arabera, «Administrazio interesatuetatik edozeinek zergadunaren egoitza aldaketa eragin ahal izango du. Administrazio horrek bere proposamena besteari helaraziko dio (...), egoitza-aldaketari buruz duen iritzia azaltzeko eta ondoreak zein egunetatik sortuko diren adierazteko». Era berean, «ados jartzen ez badira ere, prozeduran aurrera jarraitu ahal izango da artikuluko honetako seigarren zenbakian azaldutako eran», hau da, Arbitraje Batzordeari Administrazioen arteko kasuan kasuko zergadunaren helbideratzeari buruzko desadostasuna helaraziz.

2.- ERAKUNDEAREN egoitzaren inguruko gatazka hau 2015eko abuztuaren 28an planteatu zen ZAEako zuzendari nagusiaren eskutik, BFaren aurrean, Ekonomia Itunaren 43. artikularen seigarren zenbakiari eta Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 10. artikuluko d) letrari jarraikiz, eta hilabeteko epean, 2015eko uztailaren 29an BFAk desadostasuna formalki

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Eragindako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|-----------------------------------|---|-----------------------------------|
| 43/2015 | R28/2016 | 2016-12-28 | Bizkaiko Foru Aldundia | Zerga Administrazioako Estatu Agentzia. | Pertsona juridikoen zerga-egoitza |

jakinarazi zuenetik, ZAEAk 2014ko abenduaren 23an egoitza-aldaketaren inguruan egindako proposamenari dagokionez.

Espedientean ez da jasotzen Administrazioek (ZAEAk, egoitza-aldaketa proposatu zuenak, nahiz BFAk, proposamen-hartzaileak) zer ekimen eta jarduketa abiarazi zituzten Ekonomia Ituneari helburu horrekin aurreikusten den prozeduran sortutako desadostasunak modu adiskidetsuan ebazteko. Era berean, ez dakigu administrazioek aintzat hartu zituzten ala ez «Egoitza-aldaketen inguruan lantaldeak ateratako ondorioak» dokumentuan erabakitzen diren kudeaketa-arauak, Ekonomia Itunaren 43. artikularen bederatzigarren zenbakiaren aurreikuspena errazteko eta normalizatzeko, ZAEAREN eta Euskadiko Foru Aldundien artean 2006ko maiatzaren 18an egin zen bileraren aktan jasotzen denaren arabera. Nolanahi ere, aipatutako Ekonomia Itunaren arauaren interpretazio bakarra onartu ezin den arren, zeinak denbora-mugarik gabe, *sine die*, zerga-egoitza modu adiskidetsuan aldatzeko prozedura ebatzi gabe eta irekita mantentzera eramaten baituen (ikus R14/2016 ebazpena, ekainaren 20koa, 95/2011 espedientea, 7. ZO), ZAEAk, egoitza-aldaketaren sustatzaileak, ezin zuen bere zuzenketa-proposamena baietsizat edo ezetsizat jo Foru Aldundiak, proposamenaren hartzaileak, adierazpenik egin arte; izan ere, ZAEAk egoitza-aldatzeko proposamena jakinarazi eta zazpi hilabeteko epean (2014ko abenduaren 23tik) adierazi zuen formalki BFAk (2015ko uztailaren 29an) bere desadostasuna eta onarpenik eza.

3.- Hala ere, arbitraje-gatazka jorratu ondoren, bi administrazioek akordio bat adostu zuten 2016ko irailaren 25ean, ERAKUNDEAREN egoitzaren inguruan, eta BFAk ZAEAk proposatutako aldaketa onartu zuen, baita atzeraeraginaren data ere.

4.- Arbitraje Batzordeak deklaratu du (besteak beste, uztailaren 28ko R17/2016 eta azaroaren 4ko R20/2016 ebazpenetan) aurrez aurre dauden zerga-administrazioei soilik dagokiela gatazka hau; alegia, administrazio horiek dute

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Eragindako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|-----------------------------------|---|-----------------------------------|
| 43/2015 | R28/2016 | 2016-12-28 | Bizkaiko Foru Aldundia | Zerga Administrazioako Estatu Agentzia. | Pertsona juridikoen zerga-egoitza |

gatazka aurkezteko eskumena, asmo horretan atzera egiteko edo proposamena egin duen administrazioaren aurrean amore emateko aukera, eta azkenik, planteatutako gatazka honi irtenbidea emateko erantzukizuna, Arbitraje Batzordeak ebatzi baino lehen.

Azken hori da, hain zuzen ere, 43/2015 zenbakidun gatazkan gertatu dena, 2016ko irailaren 25eko akordioari jarraikiz. Horren bidez, BFAk ZAEAk proposatutako zerga-egoitzaren aldaketa onartzen du, eta hasiera batean ados ez zeuden bi administrazioek onartu egiten dute gatazka sortu duen eztabaidaren auzigaia desagertu dela. Ondorioz, administrazioek Arbitraje Batzordeari prozedura artxibatzeke eskatzen diote. ZAEAk adierazten du «ERAKUNDEAREN egoitzaren gaineko akordioak prozeduraren beharrezko izapidetzeari eragiten ez diola, errekurtsoen bidea hartu ere egin ez duen zergapekoari dagokionez», eta BFAk bere aldetik, «eskubide-urraketarik jasan duen hirugarrenik» ez dagoela ulertzen du.

5.- Bi administrazioek adierazitako azken baieztapen horrek, bakoitzak bere erara baina zentzu berberarekin, zergadunaren egoitzaren inguruko desadostasun administratiboak gogorarazten dizkigu, esku hartzen duten administrazioen eskumen-egoerari eragiteaz gain, zergapekoen eskubideari bereziki eragiten baitio, zerga-administrazioarekin dituzten harremanen ziurtasunari dagokionez (ikus Auzitegi Gorenaren 2014ko maiatzaren 5eko Epaia, 256/2012 errekurtsua, 4. ZO). Izan ere, gatazka horiek zerga-egoitzen aldaketen jatorria edo aldaketarik eza ebatzen dute. Aldaketarik egotekotan, horien eragina jasan duten administrazioek beren eskumenak zer unetik aurrera baliatu (xede den zerga-administrazioa) edo utzi (jatorrizko administrazioa) behar dituzten zehaztuko da zerga-ordainarazpenerako. Horretarako, Ekonomia Itunak zerga-egoitza hartzen du eskumenak esleitzeko eta banatzeko. Eta, ondorioz, zergapekoak bere betebeharrak eta eginkizunak noiztik bete beharko dituen zehaztuko da ere bai, bere egoitza fiskal berriari dagokion

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Eragindako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|-----------------------------------|---|-----------------------------------|
| 43/2015 | R28/2016 | 2016-12-28 | Bizkaiko Foru Aldundia | Zerga Administrazioako Estatu Agentzia. | Pertsona juridikoen zerga-egoitza |

Administrazioan. Ez da beharrezkoa zergapekoaren zerga-egoitza zehaztea zer garrantzitsua den azpimarratzea, bere zerga-egoerari eta «zerga-administrazioarekin dituen harremani» dagokienez (abenduaren 17ko 58/2003 Zergei buruzko Lege Orokorraren 48.1 artikulua eta martxoaren 10eko 2/2005 Bizkaiko Zergen Foru Arau Orokorraren 47.1 artikulua).

Hori dela eta, norbanakoaren interes legitimo eta zuzena existitzen da arbitraje-prozeduran parte hartzeko, bere zerga-egoitza zalantzan jartzen denean. Horretarako, Ekonomia Itunaren 43. artikulua seigarren zenbakian xedatzen denaren arabera, «zergapekoen egoitza zein den erabakitzeko orduan administrazioen artean desadostasunak sortzen baldin badira, Arbitraje Batzordeak konponduko ditu arazoak, *zergapekoek diotena entzun ondoren*». Ebazpen horrek, eraginpeko administrazioek egiten dituzten planteamendua eta alegazioak aintzat hartzeaz gain, zergapekoak baliatzen dituenak hartu beharko ditu kontuan.

Kasu honetan, bi administrazioek lortutako akordioaren berri izan ondoren, Arbitraje Batzordeak gatazka izapidetzea erabaki zuen 2016ko azaroaren 4ko bilkuran, baita ERAKUNDEARI espedientea ikustera ematea ere, erakundea prozeduran pertsonatzeko eta beharrezko alegazioak egin ahal izateko. Eta hori guztia, materialki, prozedura izapidetzen jarraitzea beharrezko ez zen arren, administrazioek 2016ko irailaren 25ean formalizatutako akordioaren arabera auzigaia desagertutzat jo baitzen.

6.- 2016ko abenduaren 12an ERAKUNDEAK aurkeztutako alegazioek, 30/1992 Legearen 35.e) artikulua araberako eskubidean oinarritzen direnek, ez dute helburutzat bi administrazioek 2016ko irailaren 25eko akordioan zehaztutako zerga-egoitza zalantzan jartzea [bitxia bada ere, aipatu ere ez dute egiten hori], baizik eta, besterik gabe, ZAEAK erabilitako argudioak ezeztatzea, erakundearen zerga-egoitza Madrilera lekualdatzeko asmoa arrazoitzeko idatzitako planteamenduan ageri direnak. Era berean, azaldu egiten ditu,

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Eragindako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|-----------------------------------|---|-----------------------------------|
| 43/2015 | R28/2016 | 2016-12-28 | Bizkaiko Foru Aldundia | Zerga Administrazioako Estatu Agentzia. | Pertsona juridikoen zerga-egoitza |

aitzitik, ERAKUNDEAREN erabakiak, kudeaketa administratiboa eta negozioen zuzendaritza Bizkaian gauzatzen direla defendatzeko arrazoiak, egoitza soziala lurralde horretara aldatzea erabaki zutenetik. Azkenik, Arbitraje Batzordeari eskatzen dio «43/2015 zenbakidun espedienteari aurretik egindako alegazioak formulatzeko, eta espedientean bertan gehitzeko, azken ebazpena ematean kontuan har daitezzen» (ikus *supra*, 7. aurrekaria).

Hala ere, gatazka edo administrazioaren desadostasuna [kasu honetan, ERAKUNDEAREN zerga-egoitzaren ingurukoa] ebazteko arbitraje-prozedurak eta Batzordearen eskumenak beharrezkotzat jo diren arren, agerikoa dirudi ados jartzen ez ziren administrazioek 2016ko irailaren 25ean formalizatu zuten akordioak eztabaidaren desagerpena eragin duela eta, horrekin batera, auziaren desagerpen materiala. Orduetik aurrera, Arbitraje Batzordeak aho betean onartu behar du aurretik aurka zeuden Administrazioen arteko akordioa, eta prozedura amaitutzat eman.

7.- ERAKUNDEAK akordioaren aurka formalki egin ez duen arren, zeinetan administrazioek haren zerga-egoitza Madrilen kokatzen baituten 2007ko otsailaren 6tik aurrera, agerikoa dirudi, era berean, 2016ko abenduaren 12ko idatzian erakundeak desadostasun nabaria erakusten duela, prozeduraren izapidetzearekin jarrai dezan eskatzen baitio Arbitraje Batzordeari, eta egindako alegazioak «azken ebazpena ematean» kontuan har ditzan.

Eskaera horri dagokionez, beharrezkoa da adieraztea Arbitraje Batzordeak ezin duela izapidetzearekin jarraitu, ezta erakundearen zerga-egoitzari buruzko eztabaida materialki ebatzi ere, administrazioek 2016ko irailaren 25ean ebatzitzat eman zutena; izan ere, arbitraje-prozedurak ez dira sortu zergapeko baten egoitza hasieratik eztabaidagarriaren inguruko administrazioen arteko akordioen legaltasuna kontrolatzeko. Gainera, hori ez da bide egokia zergapekoak bere desadostasun legitimoak baliatu ditzan, administrazio interesdunek esleitu dioten zerga-egoitzari dagokionez.

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Eragindako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|-----------------------------------|---|-----------------------------------|
| 43/2015 | R28/2016 | 2016-12-28 | Bizkaiko Foru Aldundia | Zerga Administrazioako Estatu Agentzia. | Pertsona juridikoen zerga-egoitza |

Zergapekoek eskumen-gatazka bat planteatzeko legitimaziorik ez dutenez [Arbitraje Batzordearen Erregelamenduko 13.3 artikuluan aurreikusitako kasuan salbu], ez dirudi, inolaz ere, arrazoirik daukatenik legitimatutako administrazioek hasitako arbitraje-prozedura jarrai dadin inposatzeko eta Arbitraje Batzordearen eskumena luzatzeko, gatazka sortu zuen eztabaida alde biek desagertutzat eman ondoren. Bizkaiko zerga-egoitza mantentzeko ERAKUNDEAK agertzen duen interes legitimoa jada ezin da baliatu prozedura honetan, administrazioen artean adostutako egoitzaren aurka. Aitzitik, erakundea legitimatuko du horrek, dudarik gabe, berrikuspen administratiboaren edo judizialaren prozesuan aurkaratzeko, eskuduntzat hartzen den administrazioak une egokian hartzen dituen erabakiei dagokienez, erakundeak administrazioaren eskumen-falta alega baitezake. Izan ere, hain zuzen, «ezerk ez du galarazten norbanakoen interesa asebetetzea, burututako likidazioei aurka eginez, horiei dagokienez eskumengabetasun-akatsa alegatu baldin badaiteke» (Auzitegi Gorenak 2011ko apirilaren 7an emandako epaia, 629/2007 errekurtoa, zortzigarren ZO).

8.- Arbitraje Batzordearen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren 8. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, «Arbitraje Batzordearen deialdiei, osaerari, bilkurei, erabakiak hartzeari eta funtzionamenduari eta prozedurari buruzko araubideari dagokionez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoa hartuko da kontuan; ulertuko da azken erreferentzia hori ere aplikatuko zaiela urriaren 1eko 39/2015 Lege berriaren (Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena) xedapenei, joan den urriaren 2tik aurrera indarrean dagoen xedapen indargabetzailearen 3. zenbakian (azken xedapenetatik zazpigarrena) esanbidez ezarritakoaren arabera». Hala eta guztiz ere, 30/1992 Legearen Bigarren Xedapen Iragakorra nahiz 39/2015 Legearen Hirugarren Xedapen Iragakorra betez, «lege hau indarrean jarri aurretik hasitako prozedurei ez zaie

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Eragindako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|-----------------------------------|--|-----------------------------------|
| 43/2015 | R28/2016 | 2016-12-28 | Bizkaiko Foru Aldundia | Zerga Administrazioko Estatu Agentzia. | Pertsona juridikoen zerga-egoitza |

lege hau aplikatuko, eta aurreko araudiari jarraituko diote»; horrenbestez, prozedura honi aplika dakiokkeen araudia aipatutako lehenengo arauan aurreikusitakoa da.

9.- 39/2015 Legearen 84. artikuluekin bat datorren 30/1992 Legearen 87. artikuluen arabera, besteak beste, honako hauek amaituko dute prozedura: eskaeraren edo uziaren ebazpenak eta atzera egiteak, eta «baita (...) bat-batean gertatutako kausak direla-eta jarraitzeko ezintasun materialak ere», edozer kasutan, emandako ebazpena arrazoitu egin beharko da. «Prozeduraren xedearen bat-bateko desagertzea gertatzen den kasuetarako, [hori amaituko duen] ebazpena kasu bakoitzean ematen den baldintzaren aitortuenean datza, gertatutako jazoeren eta arau aplikagarrien adierazpenarekin» (30/1992 Legearen 42.1 artikulua eta 39/2015 Legearen 21.1 artikulua).

10.- Kasu honetan, 43/2015 zenbakidun gatazkari buruz Estatuak eta BFAk erdietsizat aitortu duten akordioaren eraginez, desagertu egiten da bi administrazioen artean sortutako desadostasuna, eta beraz, desagertu egiten da ZAEAk hasitako prozeduraren auzigaia.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKI DU

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Eragindako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|-----------------------------------|--|-----------------------------------|
| 43/2015 | R28/2016 | 2016-12-28 | Bizkaiko Foru Aldundia | Zerga Administrazioko Estatu Agentzia. | Pertsona juridikoen zerga-egoitza |

1.- Jardunak amaitzea eta artxibatzea; izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren artean adostutako hitzarmenak eztabaidaren bat-bateko desagerpena eragiten du eta, horrekin, gatazka honen xedearena.

2.- Zerga Administrazioko Estatuko Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta ERAKUNDEARI jakinaraztea erabaki hau.